



*Muxika'tar Kindin euskal-idazle azkar-
rrak lerro oek bidaltzen dizkigu Argen-
tina'tik OARSO'rako. Bere lunen bitartez
ezagutzen genduen bera, baiña ez gene-
kien ia erritarra genduenik. Eskerrik as-
ko, Muxika jauna, eta zabal-zabalik dauz-
kazu ateak, batez ere ia erritarra zaitugun
ezkero.*

ERRENDERI ETA EUSKAL-ERRIA

Ez naiz Errenderi'n jaioa. Nere anaia Joxe bai, Errenderi'n jaioa zan. Berak eta nik, biok, Errenderi maite degu.

Aurra nintzala, nere gurasoak Goierri'tik itxaso aldera aldatu ziran. Nere lenbiziko urtean, Errenderi'n artu nuen bularra. Orduntxe, gaitz ikaragarri bat etorri zitzaidan. Sendagillearen iritzia nere amarentzat negargarria izan zan: ez nintzan biziko, gaitz arek il egingo ninduen. Nere amak, kutsutzeko bildurrik gabe, bere besoetatik ez nindun utzi. Ez dakit nere amak Jainkoa'ri euskeraz eskatu ziolako, ala Errenderi'ko eguzkia ta aizea on onak izan zitzaizkidalako, zar zar eginda ere, oraindik bizi naiz.

Baserritik errira aldatzeko gogoia, aspaldi jaio zan. Eguneroko ogia baserrian lanetik lortu bear danean, gizonak izerdi asko hota bear izaten du. Aize zakarra, legortea; batzuetan euri geiegi, bestetan gutxiegi; kaskabar, elur, izotz..., naigabezko zerbaitek biotza maiz larritzen du. Ukalondoka, oñak zapalduz, txilin eta tuturut otsak erdi zoratuz, usai txarreko aize ta keak burua nastuz eta biririk ustelduz, apainkeriz estalduz diru geiago irabazteagatik, baserria utzita, gizonak erri aldera artzen du.

Norbaitek esan zuen: «Bai dala bizi atsegiña, erriko zaratetatik alde eginda, ludian izan diran jakintsu gutxi joan izan diran mendi bide txiorretik dijoarena.» Zugatz onak, nai danean eguzkia ta nai danean itzala; aize garbia; mota askotako barazki ta igali; margo asko ta usai gozozko lore artean urretxindorra kantari; kezkarik gabe exerita, txilibitua joka; otorduetan, pake pakean, mai garbi ongi betea... Baserrian gaur orrela ezin bizi izango da. Aingeruak berak ere ez det uste zeruan izango dutenik orrenbesteko atsedean gozorik.

Gizonak obeto bizi nai du, zuzena da. Mendiko osasuna ta pakea utzita, baserritarra korrika kalera dijoa. Txukun bizi diran baserriak ezagutzen ditugu, bañan arlote xamarrak asko ikusi izan ditugu. Gure mendi ta zelaiak apaindu nai ba dira, ta ori bearrezkoa da, baserria zaindu bear da. Era-gozpenik gabe, ostoporik gabe, guziok burua jaso al izateko itxaropena, egia, maitasuna baserritarren artean zabaldu bear da. Egokiak izango liraken tresna asmatu berriak, beso gutxigokin lan geiago egiteko, irabazi aundiagoa izateko, baserrira eraman bear dira. Bestela, guzia gezurrezko itz soñua besterik ez litzake izango. Gizonen artean gezurra, gorrotoa, odolezko burruka ez da lege onekoa.

Ludia luzea ta zabala da. Irutik bik gaur ez dute jaten naikoa. Bat iltzen ba da, neurriak artu izanda ere, bi jaiotzen dira. Urte asko baño lenago orain alako bi notin izango dirala diote. Gure mendi ta zelaiak ustutzen ba dira, Euskal Erria'n jatekorik izango al da?

Baserriak obetzea, irautea, nai genduke. Gaurtik bi ta lau milla urtera, Euskal Erri'ko mendi ta zelaiak etxe txuriz apainduak agertzea nai genduke. Ta baserritarrek, soroe-tan bear bezela neurritz lanean, bearrezkoak diran barazki, aragi ta igali errira eramanaz, goserik sekula ez izateko.

Errenderi pelotari, euskal dantzari ta bertsolari bikañen erria da; oiekin batera baserritarrek egiten dute Euskal Erri. Nik, azkenez, beste Xenpelar, Jauregi ta Mitxelena asko eskatzen dizkiot Jaungoikoa'ri, Errenderi, orain arte bezela izanaz, izan dedin beti euskaldun erri aundi.

MUXIKA'TAR KINDIN